

GURE IRAKURGELA

HIRUGARREN BEGIA

Manu Lopez Gaseni

Beldurrezko eta suspensezko eleberrietan espezializatutako Sinclair Smith idazle britainiarrak duela hamar urte argitaratutako "Second Sight" idazlanaren euskal bertsioa dugu "Inork ikusi ezin duena" gazteentzako Izu taupadak bilduman argitaratutako eleberrri hau.

Grayson izeneko neska gazte bat New Yorkera joan da begietako gaitz bat hango espezialista batekin tratatzera.

Inork ikusi ezin duena



Liburua: "Inork ikusi ezin duena"
Egilea: Sinclair Smith.
Itzultzailea: Txomin Arratibel.
Argitaletxea: Ekar, 2006.

Ordua arte itsua zen, eta kornea transplante bati esker ikusmena berreskuratu du. Bigarren begian egindako ebakuntzaren ostean, berriz, zorabiatu eta hilketekin erlazionatutako ikuspen ikaragarriak ikusten hasi zen tarteka. Bigarren kornea-emailea nor zen ikertzen hasita, etorkizuna igartzeko gai zen emakume psikiko bat zela jakin zuen. Eta dohain hori berak zeukan orain. Poliziarekin lankidetzan, bere dohain horri esker bi hilketa saihestea lortu zuen, baina bere hurrengo ikuspenean agertzen zen

biktima bera zela ohartu zen... (Sasi)psikologi termino ugari balliatzen dituen eleberrria da, tartean psikiko edo igarleak, eskizofrenikoak eta abar. Horiekin osatutako sareak lagundu egiten dio argumentuari aurrera egiten.

Hala ere, istorioa era literarioan gauzatzeko orduan, idazleak hainbat gabezia agerrarazten ditu, nire aburuz. Horietako bat, elipsiak balliatzen ez jakitea da: neskak begietan zuen arazoa, zein ikuspenen kontua bizpahiru aldiz errepikatzen da oso-osorik (okulistari, polizia eta bere

mutil-lagunari kontaktuta). Beste gabezia bat estrukturala da: narratzaile orojakile bat aukeratuta, irakurlearekin jolasten du protagonistaren inguruko hiltzaile posible batzuk aurkeztuz, eta, bukaeran, benetako hiltzailea agertzen da deus ex machina moduan, kapelatik ateratako untxia legez. Aukera zitekeen ikuspuntutik iruzurtiena, inondik ere, batere disimulurik gabe erabilia.

Guztiarekin ere, horretaz ohartu gabe, irakurle gaztea suspenseari atxikita geratuko da amaiera arte.